



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

Bermeoko tabernen mozorro txapelketa

2025eko urtarrilaren 30eko Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran, aratusteetako Bermeoko tabernen mozorro txapelketaren oinarri orokorrak onartu dira.

BERMEOKO TABERNEN MOZORRO TXAPELKETA OINARRI-ARAUAK

1. Xedea

Bermeoko Udalak Bermeoko Tabernen Mozorro txapelketa antolatuko du, aratuste-martitzenean.

2. Partaideak

Txapelketa honetan, Bermeoko udalerriko taberneak parte hartu dezakete.

3. Izen-ematea

- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean urtero argitaratuko den deialdian epea zabalduko da.
- Izena emateko epea aratuste-martitzenaren aurreko barikuan amaituko da, 12:00etan.

Interesdunek izena eman beharko dute Kultura eta Hezkuntza Sailaren bulegoan, telefonoz (946179157) zein posta elektronikoz (kultura@bermeo.eus).

3. Izena eman dutenen zerrenda udaleko sare sozialetan jakinaraziko da, txapelketa baino arinago.

4. Parte hartzeko baldintzak

- Txapelketa honetarako, taberneak apainduta eta tabernariak gaiarekin bat moztuta egon beharko dute, aratuste-martitzenean, goizeko 11:00etatik aurrera.
- Izena ematen duten tabernei parte-hartzaileen kartela emango zaie ikusgai jarzeko beraien tabernan.

5. Sariak

- saria: 200 euroko balioko otzara.
- saria: 150 euroko balioko otzara.
- saria: 100 euroko balioko otzara.

Otzarak delikatesen produktuekin beteta egongo dira.

6. Taberna irabazleen aukeraketa

- Epaimahaia Jai batzordeko ordezkariak osotuko dute. Ostalariak edo haien lehen mailako odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko senideak ere edo haiekin antzeko bizikidetzak afektiboko harremana duten pertsonak ezin izango dira epaimahaiko kide izan.
- Epaimahaia tabernak ikusiko ditu, aratuste-martitzenean goizean.
- Epaimahaiko kide bakoitzak taberna bakoitzaren puntuazioa emango du, 1etik 10era. Puntuazio guztiekin, irabazleak adieraziko dira.
- Epaimahaiaren erabakia eguerdian jakinaraziko zaie taberna irabazleei, eta udaleko webgunean eta sare sozialetan ere emango dira jakitera irabazleen izenak.
- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.
- Irabazleak ebatziko dituen organoa: Tokiko Gobernu Batzarra.

**7. Epaimahaiaren balorazioa**

Epaimahaiak hauxe hartuko du kontuan:

1. Apainketaren orijinaltasuna.
2. Erabiliko diren materialentzako kontsumo orekatua erabiltzea eta ingurumena errespetatzea.
3. Tabernarien mozorroa eta tabernaren apainketa bat etortzea.
4. Euskera erabiltzea.

8. Oharrak

1. Txapelketan parte hartzeak oinarri guztiak onartzea dakar.
2. Epaimahaiak erabakiko du oinarri hauetako edukiak interpretatzeko edozein zalantzari buruz.

9. Izaera pertsonaleko datuak babestea

Lehiaketan parte hartuta, sarien irabazleek onartzen dute euren tabernen izenen berri ematea lehiaketaren ebazpena argitara emateko.

Datu pertsonalak eta aurkeztutako gainerako dokumentazioa lehiaketa hau kudeatzeko erabiliko dira, Datuak Babesteko 3/2018 Lege Organikoan (DBLO) eta Datuak Babesteko Europako Parlamentuaren 679/2016 Erregelamenduan (DEPE) oinarrituta.

- Arduraduna: Bermeoko Udala, antolakuntza@bermeo.eus
- Legitimazioa: interesdunaren baimena.
- Hartzaileak: ez zaie daturik emango hirugarrenei, ez bada legezko betebeharra dagoela.
- Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko eta tratamenduari aurka egiteko eskubideak.
- Informazio gehigarria: www.bermeo.eus/datuenbabesa.html

Bermeon, 2025eko otsailaren 5ean. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly